



2019eko MARTXOAREN 26EKO BILKURAKO AKTA

Bilkura : Ohikoa

Eguna: 2019/03/26

Ordua: 19.00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bilduak:

Olatz Iriarte Argaya. Alkatea

Ane Garmendia Gorostidi.Zinegotzia

Jokin Garmendia Etxeberria.Zinegotzia

Luis Lopez Garcia Uceda .Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDA

- 1- 2019eko otsailaren 19ko Bilkurako akta onartzea hala balegokio.
- 2- 2019ko ibilgailuen errolda onartzea hala balegokio.
- 3- 2019ko zabor erroldak onartzea hala balegokio
- 4- 2018ko aurrekontuaren likidazioa onartzea hala balegokio
- 5- Udaleko lurren aprobetxamenduaren adjudikazioa onartzea
- 6- Alkateak eman dituen ebazpenak adieraztea :
 - 2019-6....Zartagiko ordainketak
 - 2019-7... OHZ hobariak Famili ugariak
 - 2019-8...Hobariak ibilgailu historikoak
 - 2019-9....OHZ hobariak energia
 - 2019-10.... Hainbat ordainketa
 - 2019-11....Hainbat ordainketa
 - 2019-12.... Salbuespenak ibilgailu zergak
- 7- Landa bideen diru laguntza dela eta eskatutako diru laguntzaren berri ematea .
- 8- Aldundia eta udalaren arteko hitzarmena , mendekotasun prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten herritarrei zaintza kalitatearen jarraipena egitea .
- 9- Kalte patrimonialaren kexa dela eta dagokiona erabakitzea .
- 10-Galderak eta eskaerak



1.-2019-02-19 BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO .

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2019-02-19ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurri eta komentatu dira . Alkateak galdetzen zerbait zuzentzeko ikusten den. Mahaikide guztiak ados agertu dira eta dagoen bezala onartuta geratu da.

2.-2019KO IBILGAILUEN ERROLDA ONARTZEA HALA BALEGOKIO.

2019 urteko Trakzio mekanikozko ibilgailuen errolda mahaian agertu da onarpena emateko.

Eta mahaikideek, ERABAKI DUTE:

- 1.-2019 urteko Trakzio mekanikozko ibilgailuen erroldari haserako onarpena ematea.
- 2.- Errolda hori jendearen agerian jarriko da uztailearen 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Udal Ogasunen Arautzaileak, 14. artikuluko 1. zenbakian agindutakoa betez, hilabeteko epean jendaurrean jarriaz .Borondatez ordaintzeko epea, 2019eko maiatzaren 6tik, ekainaren 28 arte.
- 3.-Jendaurreko epealdia iragan eta alegaziorik tarteratu ezean, behin betikotzat onartuta emango da erabaki berririk hartu beharrik gabe.

3.-2019KO ZABOR ERROLDAK ONARTZEA HALA BALEGOKIO

2019 urteko Hiri hondakinen errolda mahaian agertu da onarpena emateko.

Eta mahaikideek, ERABAKI DUTE:

- 1.-2019 urteko Hiri hondakinen erroldari haserako onarpena ematea
- 2.- Errolda hori jendearen agerian jarriko da uztailearen 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Udal Ogasunen Arautzaileak, 14. artikuluko 1. zenbakian agindutakoa betez, hilabeteko epean jendaurrean



jarriaz .Borondatez ordaintzeko epea, 2019eko apirilaren 15tik, ekainaren 30 arte.

3.-Jendaurreko epealdia iragan eta alegaziorik tarteratu ezean, behin betikotzat onartuta emango da erabaki berririk hartu beharrik gabe.

4.-2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ONARTZEA **HALA BALEGOKIO**

Udaleko idazkariak , 2018 ekitaldiko likidazioaren txostena aurkeztu du , eta bide batez , gerakinaren laburpena .

Udal honetako Kontuhartzaileak,2018 (e)ko aurrekontuaren likidazioari buruz ondorengo txostena egin du, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan jasotakoa betez:

TXOSTENA

Udalbatzarrak 2017(e)ko abenduaren 17(e)an hartutako erabakiaren bidez onartu zuen Udal honen 2018(e)ko aurrekontua. Aurrekontu horrek jasotako ordainketa kredituen zenbatekoa, eta ekitaldian zehar onartutako aldaketena, ondoko taulan xehetzen da:

Hasierako aurrekontua:.....	239.410,00
Kreditu gaikuntzak:.....	0,00
Kreditu	0,00
Baliogabetzearen ziozko bajak:.....	0,00
Kreditu	50.974,08
	<hr/>
Behin betiko	290.384,08
aurrekontua:.....	

Aurrekontu horren exekuzioan ondorengo hauek azpimarratu behar dira:

EZER NABARMENIK EZ

1.- NORAINO GAUZATU DEN GASTUEN AURREKONTUA

Goian adierazi diren ordainketa kredituen kargura onartutako obligazioak ondokoak dira, portzentajetan eta kapituluka, aurtengo ekitaldian nahiz aurreko urtekoan:



KAPITULUA	2018 EKITALDIA			2017 EKITALDIA		
	BEHIN BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%	BEHIN-BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%
1 - Pertsonal gastuak	76.700,00	76.379,32	99,58	81.707,77	81.707,77	100,00
2 - Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	58.070,00	43.395,15	74,73	51.992,00	36.508,58	70,22
3 - Finantza gastuak	0,00	0,00	0,00	200,00	0,13	0,06
4 - Transferentzia arruntak	35.050,00	32.024,92	91,37	42.714,00	34.007,96	79,62
5 - Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6 - Inbertsio errealak	118.279,08	111.376,43	94,16	221.383,85	150.455,63	67,96
7 - Kapital transferentziak	2.285,00	1.549,14	67,80	2.600,00	1.395,33	53,67
8 - Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9 - Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00	4.703,12	4.702,99	100,00
GUZTIRA	290.384,08	264.724,96	91,16	405.300,74	308.778,39	76,19

Bereziki, gauzatutakoaren portzentajeak guztizkoaren aldean daukan garrantzi kuantitatiboa dela-eta, ondoko partidak nabarmendu behar dira:
EZER NABARMENIK EZ .

6. kapituluak (Inbertsio errealak) honako gauzatze portzentajea agertzen du, faseen arabera, aurtengo ekitaldian nahiz aurrekoan:

GAUZATZE FASEA	2018 EKITALDIA		2017 EKITALDIA	
	ZENBATEKOA EUROTAN	KREDITUEN GUZTIZKOAREN %	ZENBATEKOA EUROTAN	KREDITUEN GUZTIZKOAREN %
Obligaciones reconocidas (Fase O)	111.376,43	94,16	150.455,63	67,96
Gastos dispuestos (Fase D)	111.376,43	94,16	150.455,63	67,96
Gastos autorizados (Fase A)	111.376,43	94,16	150.455,63	67,96
Total créditos	118.279,08	100,00	221.383,85	100,00

Beraz, oro har esan daiteke gauzatze portzentajea **HANDIA** izan dela.

2.- NORAINO BURUTU DIREN OBLIGAZIO ONARTUAK

Aurrekontuko obligazio onartuengatik ordainketek (beraz, itxitako ekitaldietakoak sartu gabe) ondoko portzentajeak agertzen dituzte kapituluka, bai aurtengo ekitaldian bai aurrekoan ere:



KAPITULUA	2018 EKITALDIA			2017 EKITALDIA		
	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	%	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	%
1 - Pertsonal gastuak	76.379,32	76.379,32	100,00	81.707,77	81.707,77	100,00
2 - Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	43.395,15	42.602,05	98,17	36.508,58	36.328,16	99,51
3 - Finantza gastuak	0,00	0,00	0,00	0,13	0,13	100,00
4 - Transferentzia arruntak	32.024,92	31.425,72	98,13	34.007,96	34.007,96	100,00
5 - Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6 - Inbertsio errealak	111.376,43	49.537,23	44,48	150.455,63	132.476,49	88,05
7 - Kapital transferentziak	1.549,14	1.393,59	89,96	1.395,33	1.395,33	100,00
8 - Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9 - Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00	4.702,99	4.702,99	100,00
GUZTIRA	264.724,96	201.337,91	76,06	308.778,39	290.618,83	94,12

Bereziki, beren garrantzi kuantitatiboa ikusirik, ondorengo partidak nabarmentzekoak dira:

EZER NABARMENIK EZ

Beraz, oro har esan daiteke aurrekontuaren gauzatze HANDIA izan dela.

3.- NORAINO GAUZATU DEN SARREREN AURREKONTUA

Ondoko taulan jaso dira sarrerren aurreikuspenetan izan diren desbiderapenak, hau da, behin betiko aurreikuspenen eta benetan likidatutako eskubideen arteko aldea, kapituluka, azken bi ekitaldietan, bai balio absolutuetan bai portzentajetan:

KAPITULUA	2018 EKITALDIA			2017 EKITALDIA		
	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK	ESKUBIDE ONARTUAK	%	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK	ESKUBIDE ONARTUAK	%
1 - Zuzeneko zergak	21.500,00	24.089,40	112,04	20.300,00	22.841,21	112,52
2 - Zeharkako zergak	2.000,00	58,11	2,91	2.000,00	151,29	7,56
3 - Tasak eta bestelako zergak	12.700,00	7.444,54	58,62	14.210,00	12.127,34	85,34
4 - Transferentzia arruntak	193.310,00	202.895,35	104,96	188.166,00	195.658,89	103,98
5 - Ondare sarrerak	8.100,00	9.042,79	111,64	8.100,00	10.678,05	131,83
6 - Inbertsio errealak besterenganazetik eta hirigintzako jardueretatik ondori	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7 - Kapital transferentziak	1.800,00	51.285,51	2.849,19	37.400,00	80.007,51	213,92
8 - Finantza aktiboak	50.974,08	0,00	0,00	135.124,74	0,00	0,00
9 - Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	290.384,08	294.815,70	101,53	405.300,74	321.464,29	79,32

Bereziki, gauzatze portzentajeak guztizkoaren aldean daukan garrantzi kuantitatiboa ikusirik, ondoko kontzeptuak nabarmentzekoak dira:

EZER NABARMENIK EZ

Beraz, oro har esan daiteke exekuzioaren portzentajea OSO HANDIA izan dela.



4.- NORAINO BURUTU DIREN ESKUBIDE ONARTUAK

Aurrekontuko eskubide onartuengatik egindako kobrantzek (beraz, itxitako ekitaldietakoak sartu gabe) ondoko portzentajeak agertu dituzte kapituluka, aurtengo ekitaldian nahiz iazkoan:

KAPITULUA	2018 EKITALDIA			2017 EKITALDIA		
	ESKUBIDE ONARTUAK	KOBRANTZ A LIKIDOAK	%	ESKUBIDE ONARTUAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	%
1 - Zuzeneko zergak	24.089,40	23.846,39	98,99	22.841,21	22.641,57	99,13
2 - Zeharkako zergak	58,11	58,11	100,00	151,29	151,29	100,00
3 - Tasak eta bestelako zergak	7.444,54	7.059,09	94,82	12.127,34	10.649,96	87,82
4 - Transferentzia arruntak	202.895,35	191.248,74	94,26	195.658,89	195.658,89	100,00
5 - Ondare sarrerak	9.042,79	9.042,79	100,00	10.678,05	4.678,05	43,81
6 - Inbertsio errealak besterenganatzetik eta hirigintzako jardueretatik ondori	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7 - Kapital transferentziak	51.285,51	5.766,35	11,24	80.007,51	75.399,71	94,24
8 - Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9 - Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	294.815,70	237.021,47	80,40	321.464,29	309.179,47	96,18

Bereziki, beren garrantzi kuantitatiboa ikusirik, ondoko kontzeptuak nabarmentzekoak dira:

EZER NABARMENIK EZ

Beraz, oro har esan daiteke aurrekontuaren gauzatze portzentajea **HANDIA** izan dela.

5.- NORAINO BURUTU DIREN ITXITAKO EKITALDIETAN ORDAINDU GABEKO SALDOAK

Itxitako ekitaldietan ordaindu gabeko saldoetatik honako hauek ordaindu dira aurtengo ekitaldian, zorren sorburu-urtearen arabera:

SORBURU URTEA	HASIER.SALDOA URTARR. 1EAN	DEUSEZTAPEN BAJAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	ORDAINTZEKE BUKAER. SALD.	ORDAINKETA PORTZENTAJE A
2017	18.159,56	0,00	18.159,56	0,00	100,00
GUZTIRA	18.159,56	0,00	18.159,56	0,00	100,00

Abenduaren 31n ordaindu gabe zeuden saldoen artean, garrantzi kuantitatiboa dutenez, ondoko partidak azpimarratu behar dira:

EZER NABARMENIK EZ



6.- NORAINO BURUTU DIREN ITXITAKO EKITALDIETAN KOBRATU GABEKO SALDOAK

Itxitako ekitaldietan kobratu gabeko saldoetatik, honakoak kobratu dira aurtengo ekitaldian, zorren sorburu-urtearen arabera:

SORBURU URTEA	HASIER.SALDOA URTARR. 1EAN	DEUSEZTAPEN BAJAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	KOBRATZEKE BUKAER.SALD.	KOBRANTZA-PORTZENTAJE A
2016	696,62	0,00	696,62	0,00	100,00
2017	12.284,82	5.485,99	6.604,80	194,03	54,00
GUZTIRA	12.981,44	5.485,99	7.301,42	194,03	56,25

Abenduaren 31n kobratu gabe zeuden saldoen artean, garrantzi kuantitatiboa dutenez, ondoko partidak azpimarratu behar dira:

EZER NABARMENIK EZ

7.- DIRUZAINZAKO GERAKINAREN BIDEZ FINANTZATUTAKO OBLIGAZIOAK

Aurtengo ekitaldiaren barruan hainbat kreditu aldaketa onartu da, lehen adierazitakoaren arabera. Aldaketa horiek finantzatzeko, besteak beste, iaztik zetorren gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina erabili da. Beraz, gastuen aurrekontuko kredituak ekitaldi bereko baliabideen bitartez finantzatu dira zati batean, eta aurreko ekitaldietakoen bitartez, beste zati batean. Aurrekontu emaitza zehazterakoan xehetasun hori kontuan hartu beharko da, hala jasotzen baitu 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 48.4 artikuluan.

Aurtengo ekitaldikoko gastuen aurrekontuan, ondoko hauek dira gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren bitartez finantzatutako kredituak eta abenduaren 31n lortutako gauzatze maila:



PARTIDA	AZALPENA	B.BET.KRED. DGrekin FINAN	OBL.ONART. DGrekin FINAN.
0000.131.920.00.01	BEHIN BEH. LANGIL. ORDAINK. ADMIN. OROK.	3.000,00	1.319,14
0000.210.163.00.01	AZPIEGIT. ETA ONDAS. GAST. BIDE GARBIK	700,00	700,00
0000.215.920.00.01	FOTOKOPIADORA ETA EKIPO INFORM. KONP.	70,00	70,00
0000.221.165.00.01	ELEKTRIZITATEA: KALEKO ARGIKETA PUBLIK	500,00	500,00
0000.224.933.00.01	UDAL ERAIKUNTZEN ASEG.POLIZAK. OSTATUA	200,00	191,75
0000.421.942.00.01	MANKOMUNIT. ETA KONTS.: ENIRIO ARALAR	300,00	245,00
0000.422.942.00.01	BESTE ENTITATEEI: TOLOSALDEA GARATZEN	300,00	300,00
0000.434.323.00.01	BESTE ENTITATEEI: O.H.O. ESKOLA	50,00	49,61
0000.481.334.00.01	LUKR.GABEKO ERAKUNDE: KULTUR JARDUER.	1.000,00	1.000,00
0000.601.134.00.02	IGOGAILUA	500,00	443,55
0000.601.342.00.01	KIROL GUNE IREKIA	2.492,60	2.492,60
0000.601.452.00.03	SANEAMENDUA ETA UR HORNIDURA	751,48	705,69
0000.601.454.00.06	SAN JUANEKO BIDEA	13.010,00	13.001,62
0000.601.933.00.02	OSTATUKO INBERTSIOA	15.000,00	13.599,70
0000.642.151.00.01	UDAL PLANEAMENDUA. IRISGARRITASUN PLANA	13.100,00	13.100,00
GUZTIRA		50.974,08	47.718,65

8.- DESBIDERAPEN FINANTZARIOAK, FINANTZAKETA LOTUA DUTEN GASTUETAN

Aurtengo ekitaldi ekonomikoan, apartatu honetan zerrendatzen diren gastu-proiektuak gauzatu dira, ondoko ezaugarriak dituztenak denak ere:

- Berriazko finantzaketa dute gastu horiek, gauzatzeari espresuki lotuta.
- Urte anitzeko eragiketak dira, hau da, obligazio onartuak edota finantzaketari lotutako eskubideak ekitaldi ekonomiko batean baino gehiagotan likidatuko dira, eta ekitaldi horiei egotziko zaizkie.

Gastu mota hori urte anitzetan gauzatu izanak berarekin ekar ditzake desbiderapen finantzarioak, positiboak nahiz negatiboak, ekitaldi bakoitzean, baldin eta obligazio onartuak eta likidatutako eskubideak bat ez badatoz ekitaldien arteko portzentaje banaketan.

Ondorio horietarako, ondokoen arteko diferentzia izango da finantzaketaren desbiderapena:

⇒ Gastuaren hasieratik (nahiz ekitaldi honetan hasia izan, naiz aurrekoetan) abenduaren 31ra arte (aurrekontuaren likidazio eguna) onartutako eskubideak, gastu hori gauzatzeari lotuak.



⇒ Eta denbora tarte berean gauzatutako gastuaren zatiaren arabera onartu beharko ziren eskubideak, baldin eta sarreraren exekuzioa gastuaren exekuzioarekin batera egin bazen.

Gainera, finantzaketa lotua duen gastuaren exekuzioa aurreko ekitaldi batean has litekeen neurrian, bi hauen artean bereizi beharko da:

- Desbiderapen finantzario metatuak, hau da, lehenago adierazitakoari jarraiki kalkulatuak.
- Aurtengo ekitaldiari egotz dakizkiokeen desbiderapen finantzarioak, aurrekoaren antzera kalkulatuak baina aurtengo ekitaldian likidatutako gastu eta sarrerak soilik kontuan hartuta.

Zentzu horretan, aurtengo ekitaldiko aurrekontuan jasotzen diren finantzaketa lotuko gastuak eta, halaber, horren exekuziotik datozen desbiderapen finantzarioak ondoko hauek dira:

FINANTZAKETA LOTUA DUEN GASTUA		DESBIDERAPEN FINANTZARIOAK	
PARTIDA	AZALPENA	METATUTAKOAK	EKIT.EGOZTEKOA
GUZTIRA			

Sarrera-kontzeptuen arabera, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapen finantzario metatuak honela zehaztuta daude:

SARREREN KONTZEPTUA	AZALPENA	DESBIDERAPEN METATU POSITIBOAK	DESBIDERAPEN METATU NEGATIBOAK	EKITALDIARI EGOZTEKO DESBIDERAP.
DESBIDERATZEAK, GUZTIRA				

9.- SALDO KOBRA GAITZEN ESTIMAZIOA

Hurrengo taulan jasoko da kobragaitzak edo kobraezinak diren eskubideen estimazioa.

KONTZEPTUA	KOBR. GABEKO HASIER. SALDOA	SALDO BERMATUA	KOBRA GAITZA %-TAN.	KOBRA GAITZA EUROTAN
GUZTIRA	0,00	0,00	0,00	0,00



10.- AURREKONTU EMAITZA

21/2003 Foru Arauak 48. artikuluan arautu du aurrekontu emaitza.

Aurrekontu emaitza magnitude ekonomikoa da, eta hauxe adierazi nahi du: ekitaldian onartutako eskubideak noraino izan diren nahikoak finantzatu behar ziren obligazioei aurre egiteko (eta, halakorik balitz, itxitako ekitaldietako zenbait eragiketa aurtengo ekitaldian deuseztatzeak sortutako defizitari aurre egiteko).

AURREKONTUAREN EMAITZA			
KONTZEPTUAK	ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK	ONARTUTAKO OBLIGAZIO GARBIAK	URTEKO EKITALDIKO AURREKONTU- EMAITZA
a) Eragiketa korronteak	243.530,19	151.799,39	91.730,80
b) Kapital-eragiketak	51.285,51	112.925,57	-61.640,06
c) Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
d) Pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
1. URTEKO EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA (1=a+b+c+d)	294.815,70	264.724,96	30.090,74
KONTZEPTUAK	AINZATETSITAKO ESKUBIDEAK EZEZTATZEA	AINZATETSITAKO OBLIGAZIOAK EZEZTATZEA	ITXITAKO EKITALDIETAKO ADURREKONTU- EMAITZA
a) Eragiketa korronteak	5.485,99	0,00	-5.485,99
b) Kapital-eragiketak	0,00	-0,00	-0,00
c) Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
d) Pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
2. ITXITAKO EKITALDIETAKO AURREKONTU-EMAITZA (2=a+b+c+d)	5.485,99	-0,00	-5.485,99
3. DOIKUNTZEN AURREKO AURREKONTU-EMAITZA (1+2)			24.604,75
<u>DOIKUNTZAK :</u>			
a) Gastu orokorretarako diruzainzako gerakinarekin finantzatutako kreditu gastatuak			47.718,65
b) Ekitaldiko finantziario-desbideratze negatiboak			0,00
c) Ekitaldiko finantziario-desbideratze positiboak			0,00
4. DOIKUNTZAK GUZTIRA (4=a+b-c)			47.718,65
AURREKONTU- EMAITZA DOITUA (3+4)			72.323,40

11.- DIRUZAINZAKO GERAKINA

21/2003 Foru Arauak 48. artikuluan arautu du diruzaintzako gerakina.



Diruzaintzako gerakina magnitude finantzarioa da, eta entitateak epe laburrera izango duen likideziaren soberakina adierazten du. Bestela esanda: diruzaintzako gerakina ondoko egoera gertatuko balitz entitateak izango lukeen dirutzak osatzen du: epe laburrera kobratu gabeko eskubideen epemuga amaitu eta abenduaren 31n kobratzea, eta bilketa horren emaitzarekin eta data horretako fondo likidoekin epe laburrera ordaindu gabeko obligazioei aurre egitea, horien epemuga ere abenduaren 31n amaituko litzatekeela pentsatuz.

Hiru dira diruzaintzako gerakinaren osagaiak:

- Kobrantza zalantzarriko saldoetarako hornidura.
- Gehiegizko finantzaketa lotua.
- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.

Kobrantza zalantzarriko saldoetarako hornidura enteak kobragaitz edo kobraezintzat hartutako eskubide kobratu gabeen estimazioa da. Kobratu gabeko eskubide horiek 9. apartatuan zehazten dira.

Gehiegizko finantzaketa lotuak bi osagai ditu. Alde batetik, finantzaketa lotua duten gastuetan metatutako desbiderapen finantzario positiboek osatzen dute eta desbiderapen horiek ekitaldiaren amaieran kalkulatzen dira erakunde finantzatzaile bakoitzarentzat eta, bere sorreran datzan gastu bera finantzatzeko erabili beharko da, edota halakorik balitza, proiektatu den gastua osorik edo zati batean burutu ezin izanak nahiz burutzeari uko egin izanak sortutako obligazioak estaltzeko. Bestalde, kontuan hartzen ditu baita ere, entitateak zuzkitu dituen beste hornidura batzuk.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina kalkulatzeko, diruzaintza gerakinari estimatutako kobrantza zalantzarriko saldoak eta gehiegizko finantzaketa lotua kenduko dizkiogu.

DIRUZAINZAKO GERAKINA		
Kontu zbk.	Osagaiak	Ekitaldia
57	1. (+) funts likidoak	416.954,41
	2. (+) Kobratzeke dauden eskubideak	70.782,92
430,433,437,438	-(+) urteko aurrekontukoak	57.794,23
431,434,439	-(+) itxitako aurrekontutakoak	194,03
440,442,449,456,470, 471,472,548,550	-(+) aurrekontukoak ez diren eragiketetakoa	12.794,66
	3. (-) Ordaintzeko dauden obligazioak	82.731,39
400	-(+) urteko aurrekontukoak	63.387,05
401	-(+) itxitako aurrekontutakoak	0,00
165,166,180,185,410, 414,419,453,475,476, 477,502,515,516,521, 560,561	-(+) aurrekontukoak ez diren eragiketetakoa	19.344,34
	4. (+) Oraindik aplikatu gabeko partidak	0,00
554,559	-(-) behin betiko aplikatzeko dauden egindako kobrantzak	0,00



555, 5581, 5585	-(+) behin betiko aplikatzeko dauden egindako ordainketak	0,00
	I. Diruzaintzako gerakina guztira (1 + 2 – 3 + 4)	405.005,94
4900,4901,4902,4903	II. Kobranta zalantzarriko saldoak	0,00
	III. Gehiegizko finantzaketa lotua	0,00
	IV. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (I – II – III)	405.005,94

Beraz, aurtengo ekitaldia likidatzean diruzaintzako gerakina guztira 405.005,94 eurokoa izan da; horietatik:

⇒ 0,00 euro, hau da, kobranta zalantzarriko saldoen hornidura, kredituen zenbatekoen balio-galera zuzkitzera zuzendu da.

⇒ 0,00 euro, hau da, gehiegizko finantzaketa lotua. Atal honek bi osagai ditu; alde batetik, finantzaketa lotua duten gastuetan metatutako desbiderapen finantzario positiboek osatzen dute eta bere sorreran datzan gastu bera finantzatzeko erabili daiteke; eta bestetik, kontuan hartzen ditu entitateak zuzkitu dituen beste hornidura batzuk.

⇒ 405.005,94 euro, hau da, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina, eta berau erabili ahal izango da, kreditu aldaketak finantzatzeko (bai finantzaketa lotua duten gastuetarako eta baita gastu orokorretarako ere).

12.- EMAITZAK EGIAZTATZEA

KONTZEPTUA	EURO
Aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakin gordina	380.401,19
+ Aurtengo ekitaldiko aurrekontu-emaiza (doitu aurretik)	24.604,75
Aurtengo ekitaldiko diruzaintzako gerakina guztira	405.005,94

13.- KREDITU GERAKINAK

Kreditu gerakinak, hain zuzen, behin betiko kredituei horien kargura onartutako obligazioak kenduz kalkulatzen dira.

21/2003 Foru Arauak 44.1 artikuluan agintzen duenez, ekitaldian sortutako obligazioei aurre egiteko beharrezkoak ez diren aurrekontuko ordainketa-kredituak (hau da, kreditu



gerakinak) zuzenbide osoz baliogabetuko dira abenduaren 31n, ondorengo ekitaldiko aurrekontuari txertatu behar zaizkionean izan ezik.

Goian aipatutako Foru Arauak 32.1 artikuluan jaso du zein kasutan izango dugun kreditu gerakin horiek txertatzeko aukera. Hona hemen zerrenda:

- Transferitutako kredituak eta kreditu gehigarriak, baldin eta bi kasuetan ekitaldiko azken hiru hilabetean onartu badira.
- Erabilitako gastuetarako kredituak (D fasea), baldin arrazoi justifikatua dela eta obligazioa ezin izan bada onartu.
- Gaitutako kredituak eta lotutako sarreraren menpeko beste kreditu batzuk.
- Kapital eragiketarako kredituak.

Ez-erabilgarritzat hartutako kredituak inola ere ezingo dira txertatu. Aurrekontuan txertatutako kredituek finantzatutako obligazioak, onartzekotan, txertaketaren ekitaldi berean onartu beharko dira; kreditu horiek, beraz, ezingo dira hurrengo urteko aurrekontuan berriro txertatu, lotutako sarrerak dituzten kapital eragiketarako kredituak izan ezik.

Horren arabera, ondoko taulan zehaztuta daude aurtengo ekitaldiaren likidazioaren emaitza diren eta txerta daitezkeen kreditu gerakinak. Txertaketa zuzitzeko, aurreko lau kasuetatik zeinetan aurkitzen diren ere zehazten da bertan. Nolanahi ere, kredituak txertatzea aukerakoa da eta, egitekotan, ekainaren 30a baino lehen onartu beharreko kreditu aldaketarako espediente baten (edo batzuen) bitartez egin beharko da.

PARTIDA	AZALPENA	GERAKINEN ZENBATEKOA	EGOERA				
			a	b	c	d	e
1 0000.601.933.00.01 2018	ABALI GOENENKO ORDAINKETA	6.885,26				X	
1 0000.601.134.00.02 2018	IGOGAILUA	1.490,60				X	
1 0000.601.454.00.03 2018	BESTELAKO PROIEKTUAK	63.625,00				X	
1 0000.722.943.00.01 2018	BESTE ENTITATEEI: MENDI NEKAZAR. KUOTA	2.000,00				X	
1 0000.781.333.00.01 2018	LANDAREAK	285,00				X	
TXERTA DAITEZKEEN KREDITUEN GUZTIZKOA		74.285,86					
TXERTATU EZIN DIREN KREDITUEN GUZTIZKOA		145.734,88					
KREDITU GERAKINEN GUZTIZKOA		220.020,74					

14.- ONDORIOAK

Baliarrainen , 2019.(e)komartxaore 26(a)
Kontuhartzailea



2018KO ALTORTEGI GERAKINEKO LABURPENA

1- Altxortegiko izakin likidoak: 2018/12/31an Kaxan eta Kutxan dagoena	166924,41 + 30 + 300000	416.954,41 €
2- Sarrera-Aurrekont. Zordunak: Urteko ekitaldia: 2018/12/31 kobratu gabe geratu direnak:		57.794,23 €
2018 zaborra	*	385,45 €
IRISGARRITASUNA		8.250,00 €
EREIN		32.188,24 €
LANDAOLA		2.552,29 €
Ibilgailua 2018	*	207,43 €
Osakidetza 2018		1.070,92 €
Partaidetza		1.500,00 €
Eugenio ibilgailua bueltatu behar ez zena 2018 Kobratzea		23,84 €
Gaizka ibilgailua bueltatu behar ez zena 2018 kobratzea		11,74 €
Gazteria		1.028,63 €
Foru fondoaren likidazioa 2018		10.575,69 €
3- Sarrera-Aurrekont.Zordunak: Itxitako ekitaldiak: 2017/12/31an kobratu gabe geratu direnak:		194,03 €
Zaborrak: 2017 1. Hiruhilekoa jasotzeko dagoena		38,58 €



Zaborrak: 2017 2. Hiruhilekoa jasotzeko dagoena	19,29 €	
Zaborrak: 2017 3. Hiruhilekoa jasotzeko dagoena	68,08 €	
Zaborrak: 2017 4. Hiruhilekoa jasotzeko dagoena	68,08 €	
4- Aurrekontuz kanpoko zordunak: 2018/12/31an Patrimonialean kobratzeko dagoena		12.794,66 €
Alokairuen BEZkobratzeko gehi inbertsioena	12.794,66 €	
5- Gastu-Aurrekont.Hartzek.: Urteko Ekitaldia: 2018/12/31an ordaindu gabe geratu direnak		63.387,05 €
Elektrizitatea Pilotalekua	178,10 €	
taxia	615,00 €	
Tolosaldeko mankomun.	572,20 €	
Hiltegia	27,00 €	
Tolomendi	155,55 €	
ADOME Saneamendua	60.000,00 €	
Beti Garbi Laura Garbiketa	1.839,20 €	
Denera		
6- Gastu-Aurrekont.Hartzek.: Itxikitako ekitaldia: 2018/12/31an ordaindu gabe geratu direnak		0,00 €
	0,00 €	
6- Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: 2018/12/31an patrimonialean ordaintzeko dagoena		
Itzuli beharreko fidantzak:		19.344,34 €



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

1-Ileapaindegia	564,00 €
2-Itziar Urtasun Zartagi	1.500,00 €
3- Juan Jose Iturrioz	154,15 €
P.F.E.Z. 2018ko 4. hiruhilabetea	3.572,37 €
Gizarte Seg. Eta Elk. Ordaindu beharrekoa	1.893,82 €
4190 kontuan dagoen	11.660,00 €

7- Altxortegi-gerakin gordina: 2018/12/31an geratzen den gerakina eta 2019an erabili daitekeena

GERAKIN GARBIA

405.005,94

405.005,94



AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

2018. URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

ARAUDI APLIKAGARRIA

- * 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- * 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- * Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2017(e)ko azaroaren 7(e)an, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

- ENTITATE
ZERRENDA:**
1. BALIARRAIN

2. HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Entitate honen finantzaketa ahalmena/premia, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera, honako hau izan da 2018. urtean:

Superabita:	30.090,74
DGarekin finantzatutako defizita:	0,00

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doikuntzarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetako sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetako gastuen arteko



diferentziaren bitartez egin da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta. Ondoko taulan xehatzen da egin den kalkulua:

Sarrera ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	294.815,70
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	264.724,96
SEC doikuntzak	0,00
Finantzaketa ahalmena / premia	30.090,74
DGak finantzatutako obligazio ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	47.718,65
DGak finantzatutako defizita:	0,00
Finantzaketa ahalmena / premia, plana egiteko obligazioaren ondorioetarako (1/2013 FAre 5.3 art./Jarraib. 1.1 erreg.)	30.090,74

2018. urterako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, toki entitate honek betetzen du aurrekontu egonkortasunaren 2018. urterako helburua.

Finantzen iraunkortasuna

2018-12-31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, honako hau izan da, 2018. urteko sarrera arrunten aldean:

Zor bizia: %0,00

Kalkulua egiteko, 2018-12-31ko zor bizia erabili da, indarrean ziren eragiketa guztiak kontuan hartuta, bai epe luzekoak, bai epe laburrekoak, abaletatik eratorritako arriskua barne.

2018. urterako ezarritako helburua zor bizia %75 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, toki entitate honek betetzen du finantza iraunkortasunaren 2018. urterako helburua.

Gastuaren araua

2018. urtean gastuaren muga eta gastu konputagarria honako hauek izan dira:

Gastuaren muga: 210.254,68



Gastu konputagarria:	<u>199.859,06</u>
Diferentzia: DGak finantzatutako gastu konputagarria:	10.395,62
	0,00

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

	2018	2017
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	264.724,96	304.075,40
Zorraren interesak:	0,00	0,13
SEC doikuntzak:	0,00	0,00
Admin. publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua:	<u>64.865,90</u>	<u>98.748,43</u>
Gastu konputagarria:	199.859,06	205.326,84
BPGaren hazkundearen erreferentzia tasa: %2,4	4.927,84	
Arau aldaketan eragina:	0,00	
Gastuaren muga:	210.254,68	
Gastuaren muga - Gastu konputagarria:	10.395,62	
DGak finantzatutako obligazio ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	47.718,65	
DGak finantzatutako gastu konputagarria:	0,00	
Gastuaren muga - Gastu konputagarria, plana egiteko obligazioaren ondorioetarako:	10.395,62	

Hori dela eta, toki entitate honek betetzen du 2018. urterako gastuaren araua.

3. ONDORIOAK



Toki entitate honek bete egiten ditu aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2018. urterako ezarritako helburuak eta gastu araua. Beraz, toki entitate hau ez dago behartuta plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Mahaikideek ERABAKI DUTE .

- 1.-2018eko likidazioari onarpena ematea
- 2.-Eta Foru Aldundiari onarpenaren berri eta espedientea igortzea dagokion beste erakundeetara bezala .

5.-UDALEKO LURREN APROBETXAMENDUAREN ADJUDIKAZIOA ONARTZEA

Baliarraingo udalak , 2019eko otsailaren 19ko Osoko Bilkuran UDAL JABETZAKO LURSAILAK , NEKAZAL PROBETXAMENDURAKO ERABILTZEKO BALDINTZA PLEGUA onartu zuen.

Erabakiaren berri herrian deia egin zen eta izena emateko epea , 2019eko martxoaren 12rako jarri zen .

Izena emateko epealdian ondorengo bi hauek izena eman zuten :

2019-03-02ean LARRASPI S.C.

2019-03.12EAN LARRETA EZ

Udalak onartutako baldintza plegua kontutan hartuaz , biek ez dira herritarrak baina eskusiboki nekazaritza jarduera dute beren eguneroko lana eta bakarra .

Eta ondorioz , biek puntuazio berdina dute .

Egoera honen aurrean , beraiekin bildu da eta berdintasunaren aurrean , udalak dagokiona erabakia hartu ordez, beraien artean adostasun batetara iristea proposatu zitzaien .

Elkarren artean hitz egin eta adostasun batetara iristeko azken eguna 2019eko martxoaren 26ea jarri zitzaien .

2019eko martxoaren 26ean , LARRASPI S.C ren ordezkariak una idazkaritzara deitu du eta LARRETA EZ esleitua izan behar duela beraiek atzera eginez .



Guztiaren ondoren , 2019eko martxoaren 26ko Bilkurari proposatzen zaio LARRETA EZ ri esleitzea , eta hitzarmena berarekin sinatzea .

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

- 1.- UDAL JABETZAKO LURSAILAK , NEKAZAL PROBETXAMENDURAKO ERABILTZEKO BALDINTZAN jasotzen direnak , LARRETA E.Z ri esleitzea , baldintza pleguan adierazitako terminoetan .
- 2.-Lurzoruaren probetxamendua zuzenean berak egitea bere jarduerarako .
- 3.-Hitzarmena sinatzeko alkatea baimentzea .

6.-ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENAK ADIERAZTEA :

Azkeneko osoko Bilkuratik gaur arte alkateak eman dituen ebazpenak ondorengoak direla aditzera ematen da :

- 2019-6....zartagiko ordainketak
- 2019-7... OHZ hobariak famili ugariak
- 2019-8...hobariak ibilgailu historikoak
- 2019-9....O.H.Z hobariak energia
- 2019-10.... hainbat ordainketa
- 2019-11....hainbat ordainketa
- 2019-12.... salbuespenak ibilgailu zergak

Mahaikideek jakinaren gainean geratu dira.

7.-LANDA BIDEEN DIRU LAGUNTZA DELA ETA ESKATUTAKO DIRU LAGUNTZAREN BERRI EMATEA .

2019 urterako landabideen deialdia argitara eman zela eta azken eguna martxoaren 26e zela , eta , Dorregi baserriko jabeak alkateari zuzendutako diru laguntzaren berri gogorarazi diola kontutan hartuta Dorregiko bidearen eskaera luzatu dela jakitera ematen da .

Aldundiak bidearen diru laguntza zenbatekoa den erabaki hartzen duenean, udalak dagokion erabakia hartuko du , kontutan hartuaz , inor ez dela bertan bizi , ganadurik ez dagoela eta O.H.Z ren erroldan alta emana ez dagoela .



8.-ALDUNDIA ETA UDALAREN ARTEKO HITZARMENA , MENDEKOTASUN PRESTAZIO EKONOMIKOAK JASOTZEN DITUZTEN HERRITARREI ZAINZA KALITATEAREN JARRAIPENA EGITEA .

Gizarte Politikako Diputatuak , otsailaren 12ean Diputatuen kontseiluak onartutako hitzarmenak bidali dituela jakitera eman da.

Hitzarmen honen xedea , Aldundiak , kudeaketa emakida proposamena igortzen du , Udalak eta Aldundiaren artean , bere finantzaketa barne . Aipatutako kudeaketa emakidaren helburua da , Aldundiak ematen dituen mendekotasun diru laguntzen onuradunen kalitatea eta jarraipena egitea.

Hitzarmenaren edukia ikusi ondoren , mahaikideek ERABAKI DUTE :

- 1.-Hitzarmena osotasunean onartzea .
- 2.-Hitzarmena sinatzeko alkatea baimentzea.
- 3.-Aldundiari erabakiaren berri ematea .

9.-KALTE PATRIMONIALAREN KEXA DELA ETA DAGOKIONA ERABAKITZEA .

Herriko ostatuko teilatupeko solairuko komonetik parrokiaren logelara ura erori dela eta, bertan alokairuan bizi den herritar bati, telefono mugikorra busti zitzaiola eta aberiatu egin zitzaiola adierazi duela .

Egoera honen aurrean , balorazioa egin eta gertaeren ondorioz kaltea sortu dela ziurtatzea eskatu zitzaion . Baina bere aldetik ez du inolako azalpenik ekarri , aldiz erreklamatu egin du telefono mugikorrik gabe dagoela .

Azkenik , udaleko zinegotzia Tolosara joan da , telefonoaren kaltea baloratzea , kaltearen arrazoia zehaztea eta telefonoaren balioa zenbatekoa den jakitea .

Eta , udal zinegotziari eman zitzaion informazioaren arabera ,

- 1.- Telefonoaren kaltea , uragatik izan zitekeela .
- 2.-Telefonoa ere zaharra zela eta lehen egon zitekeen bezala ikusita , bere balioa 30 eurotako izango zela .

Horregatik , ERABAKI DA :

Telefono jabeari , jasandako kaltearen ordaina 30,00 euro ordaintzea .



10.-GALDERAK ETA ESKAERAK

Bat.-Txerriek esleitzeko deialdia herrian egin zen . herritarren aldetik interesik ez zen agertu inork hartzeko .Baliarraingo herrian artzai urte asko daramanak interesa agertu zuen eta udalak deian jarritako prezioa onartzen zuela eskaini zuen .

Bi txerrien balioa , 1,40 €X150 kilo bakoitza ..210€X2 txerri ...420 € da. Baldintza hauek kontutan hartuta , FERMIN GARMENDIA ESTANGA (948.513.220) jaunari esleitzea erabaki da .

Bi.- GALTZAUNDIREN KONPROMISO ADIERAZPENA EUSKARA BERMATZEKO ONARTZEA, HALA BALEGOKIO.

Alkateak jakinarazten du, eskualdean euskara bermatzeko konpromisoa hartzeko luzapena egin duela Galtzaundik eta, horren harira, konpromisoaren edukia ondorengo da:

“TOLOSALDEKO EUSKALGINTZAREN GOBERNANTZA EREDU BERRIA TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIA

Tolosaldeko herritar gehien-gehienak euskaldunak dira: eskualdeko biztanleen %75 euskal hiztuna da, beste %10ak ulertu behintzat egiten du, eta belaunaldi gazteenak unibertsalizazioaren muga daude. Euskal Herriko zonalde euskaldunen artean jartzen gaitu horrek eta hau, gure ustez, harrotasunez ez ezik, erantzukizunez hartu behar da. Globalizazio garaian, hiztun komunitate txikiok ahalegin berezia egitera behartuta gaude eutsi ez ezik gure hizkuntzen etorkizuna bermatzeko. Geure egoeran, posible da Tolosaldean euskara harremanetarako, gozamenerako eta lanerako hizkuntza nagusia izatea, erabateko unibertsalizazioa lortzeko urratsak ematea eta, horrela, hizkuntzen indarberitze eta normalizazioan erreferente izatea, benetako arnas gunea euskararentzat. Baina ausardiarekin, koherentziarekin eta eraginkortasunez jokatzeko eskatzen digu horrek: azken hamarkadetakako lorpen izugarriak gutxietsi gabe, euskalgintzaren ibilbidearen irakurketa kritikoa egitea, lan esparru partekatua eraikitzea, jomugak adostea eta norabide berean jardunez herritarrei harrotasun eta erantzukizun hori transmititzea. Hori da dagokiguna.

Soka mutur horri, non hari mutur asko txirikordaten diren, heldu dio 2018an zehar gai horretan sakontzen aritu den Tolosaldeko Euskararen Mahaia sustatzeko Lan Mahaiak¹. Hemen elkartu dira euskalgintza instituzionalaren eta sozialaren sentsibilitateak eta lan ereduak, eta euskararen etorkizuna bermatu eta berau eskualdeko hizkuntza nagusia izatea helburu duen gobernantza eredu berritzaile eta erreferentziazkoa eraikitzeko urrats sendoak eman behar direla izan da ondorio nagusia. Euskalgintza instituzionalaren eta sozialaren arteko elkarlana, eskualde ikuspegia, estrategia eta helburu komunak, berdintasuna eta zeharkakotasuna, eta eraginkortasuna eta lidergo partekatua dira jorratu eta sakondu beharreko kontzeptuak, guztiak, xede honen



zerbitzura: TOLOSALDEAN EUSKARA HIZKUNTZA NAGUSIA IZATEKO ESTRATEGIA BERRITZAILE ETA INKLUSIBOA.

Hitz gutxitan azaldutako gogoeta hori eta bere baitan hartzen dituen ekimenak, pasa den urrian eta abenduan egin ziren bi batzarretan xeheki aurkeztu zizkion aipatutako Lan Mahaiak eskualdean gauzatzen diren hizkuntza politika desberdinen eragileen ordezkariak zabalari. Eta berretsiak izan ziren.

Horregatik guztiagatik, ordezkatzeko dudak erakundearen izenean, ADIERAZTEN DUT:

1. Tolosaldea eskualdeko Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa eta Zizurkil udalerrietan -horietako batean, batzuetan edo guztietan- euskararen etorkizuna bermatzeko jarduerak sustatzeko, garatzeko edo babesteko erantzukizuna dugula, legez ezarria edo, eta batez ere, geure desioz onartua.
2. Bat egiten dugula eskualde ikuspegiko hizkuntza plangintza diseinatu eta aitzineratzeko euskalgintza instituzionala eta sozialaren bilgunea, hau da, Tolosaldeko Euskararen Mahaia, eratu eta indartzeko asmoarekin.
3. Bat egiten dugula Tolosaldeko Euskararen Mahaiak izango dituen Misio eta Helburuekin:
 - a. Misioa: Tolosaldean euskara indarberritu eta bere erabilera normalizatzea, berdintasun eta aniztasun balioen oinarrietatik, benetan komunikazio eta kohesio hizkuntza nagusia izan dadin bere lur-eremu osoan.
 - b. Helburu estrategikoak:
 - i. Gobernantza eredu berri bat oinarri eta sostengu duen eragile instituzional, sozial eta kulturalen elkargune eta erabakigunea antolatzea.
 - ii. Eskualde mailako hizkuntza politika definitzea.
 - iii. Normalizazio erreala lortzeko baliabideak adostu eta abian jartzea.
 - iv. Gizarte esparru guztietako eragileekin elkarlana bermatzea, euskara beren eguneroko jardunean hizkuntza nagusia, komuna, izan dadin.
 - c. Helburu estrategikoak:
 - i. Bizikidetzaren eremu zabalean (generoa, aniztasuna, integrazioa ...) inklusio bidea egiteko diskurtsoa eta metodoa landu eta garatzea.
 - ii. Garapen sozio-ekonomikoarekin uztartzea.
 - iii. Bizitza sozio-kulturala euskaraz izan dadin ahalbidetzea.
4. Ordezkatzeko dudak erakunde gertu dagoela Tolosaldeko Euskararen Mahaiaren egikaritze prozesuan parte hartzeko eta lankidetzaren eredu honetan sakontzeko, gure presentzia beharrezkoa den foro edo lan-mahaitan parte hartuz, gure esperientzia edota hizkuntzaren normalizaziora bideratutako baliabide teknikoak egitasmoaren zerbitzura jarritz, edota, hala badagokigu (Udalak, Gipuzkako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza) proiektu hau eta bere baitan adostutako ekimen zehatzak ekonomikoki sustengatuz.



5. Edonola ere, hartutako konpromiso hauek ez dutela murrizketarik edo kalterik eragin behar ordezkatzan dudan erakundearen autonomian eta egitekoetan, eta konpromiso hau indartuko dela egitasmo bateratuak gauzatzan diren heinean, baliabideak optimizatzen diren heinean, eta jarduera eraginkorragoa eta errentagarriagoa den heinean.

Eta hau egiteko legezko gaitasun nahikoa dutelarik, zera egiaztatzeko sinatzen dut agiri hau: ordezkatzan dudan erakunde edo saileko erabaki organo nagusiak Tolosaldeko Euskararen Mahaia eratzeko egitasmoa babestea eta agiri honetan zehaztutako konpromisoak hartzea onartu zuela,an, 2019koren....an.

Erakundea:.....

Kargua:

Izen-abizenak:
eta zigilua”

Izenpea

Mahaikideek erabaki dute:

Bat.- Tolosaldeko euskalgintzaren gobernantza eredu berriaren konpromisoa, osotasunean onartzea eta bat egitea.

Bi.- Erabakiaren berri Galtzaundiri zuzentzea.

Eta besterik ezean bilera amaitutzat eman zuen alkateak , gaueko 20:30 etan .

Alkateak

Idazkariak